

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

**ITZULPENA<sup>1</sup>**

---

Araua: 689/2008 (EE) ERREGELAMENDUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA, 2008ko ekainaren 17koa, produktu kimiko arriskutsuen esportazio eta inportazioari buruzkoa.

---

Ondorengo itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta Zerbitzu honen ziurtagiriarekin.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik.

---

<sup>1</sup> Jatorrizko testua, Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratua, hauxe da: «REGLAMENTO (CE) N° 689/2008 DEL PARLAMENTO EUROPEO Y DEL CONSEJO, de 17 de junio de 2008, relativo a la exportación e importación de productos químicos peligrosos» (*Diario Oficial de la Unión Europea, L 204/1 de 31/7/2008*)

# *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

## I

*(EE/Euratom tratatuen arabera aplikatutako egintzak, horien argitalpena ez da derrigorrezkoa)*

### ERREGELAMENDUAK

#### **689/2008 (EE) ERREGELAMENDUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA, 2008ko ekainaren 17koa, produktu kimiko arriskutsuen esportazio eta inportazioari buruzkoa**

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR BATASUNeko KONTSEILUAK,

Europako Erkidegoa Eratzeko Tratatuak, eta, bereziki, haren 133. artikulua eta 175. artikuluko 1. paragrafoa aztertu dituzte,

Batzordearen proposamena aztertu dute,

Europako Ekonomia eta Gizarte Komitearen irizpena aztertu dute <sup>(1)</sup>,

Kontsulta egin diote alde zuzenetik Eskualdeetako Komiteari,

Tratatuen 251. artikuluan ezarritako prozedurari jarraiki <sup>(2)</sup>,

Honako hauek kontuan hartuta:

(1) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2003ko urtarrilaren 28ko 304/2003 (EE) Erregelamenduak, produktu kimiko arriskutsuen esportazio eta inportazioari buruzkoak <sup>(3)</sup>, Rotterdameko Hitzarmena aplikatzen du (aurrerantzean "Hitzarmena"), hainbat pestizida eta produktu kimiko nazioartean merkaturatu baino lehen bete beharreko baimen oinarrituaren gainekoa<sup>(4)</sup>. Hitzarmen hori 2004ko otsailaren 24an jarri zen indarrean, eta Kontseiluaren 1992ko uztailaren 23ko 2455/92 (EEE) Erregelamendua, produktu kimiko jakin batzuen esportazio eta inportazioari buruzkoa, ordeztu zuen <sup>(5)</sup>.

(2) 2006ko urtarrilaren 10ean C-178/03 gaian emandako epaian (Europako Parlamentu/Batzorde eta Kontseiluak) <sup>(6)</sup>, 304/2003 (EE) Erregelamendua baliogabetu zuen Europako Erkidegoetako Justizia Auzitegiak, Tratatuaren 175. artikuluko 1. paragrafoan bakarrik oinarrituta baitzegoen. Epai horren arabera, 133. artikulua eta 175. artikuluko 1. paragrafoa ziren erregelamendu horretarako oinarri juridiko egokiak. Hala ere, Auzitegiak ebatzi zuen, Erregelamenduaren eraginek indarrean jarraitu behar zutela arrazoizko epe batean zehar, oinarri juridiko egokiak zituen erregelamendu bat onartu arte. Horrek esan nahi du ez direla berriz ere bete behar 304/2003 (EE) Erregelamenduak xedatutakoaren arabera betetako betebeharrak.

(3) 304/2003 (EE) Erregelamenduak xedatutakoari jarraiki, Batzordeak 2003 eta 2005 bitartean 304/2003 (EE) Erregelamenduak izandako funtzionamenduari buruzko txostena aurkeztu zion Europako Parlamentuari eta Kontseiluari. Oro har, prozedurek ongi funtzionatu dute. Hala ere, txostenak aldaketa tekniko batzuk egin behar direla azaltzen du. Beraz, komeni da aldaketa-elementu horiek Erregelamenduan sartzea.

(4) Hitzarmenak baimena ematen die alderdiei giza osasuna eta ingurumena babesteko, Hitzarmenean xedatutakoak baino neurri zorrotzagoak hartzeko, baldin eta Hitzarmenaren xedapenen eta Nazioarteko Zuzenbidearen arabera bada. 2455/92 (EE) Erregelamenduak xedatutakoaren arabera, alderdi batzuetan Hitzarmenak ezarritako xedapenetatik harago joan behar da herrialde inportatzaileetako ingurumenari eta oro har publikoari emandako babes-maila ez gutxitzeko.

(5) Erkidegoak Hitzarmenean duen partaidetzari dagokionez, funtsezkoa da harreman-puntu bakar bat izatea Idazkaritzarekin eta Hitzarmeneko gainerako alderdiekin harremanak edukitzeko, eta beste herrialdeekin harremanak edukitzeko. Harremanetarako puntu hori Batzordea izatea komeni da.

(6) Jakinarazpen-prozedura bateratua erabili behar da Erkidegoan debekatutako eta era zorrotzean mugatutako produktu kimiko arriskutsuak esportatzeko. Ondorioz, produktu kimiko arriskutsuak (berez substantzia bat osa dezakete edo prestakin gisa edo

---

(1) C 175 EO, 2007.7.27koa, 40. or.

(2) Europako Parlamentuaren Irizpena, 2008ko urtarrilaren 15ekoa (oraindik Egunkari Ofizialean argitaratu gabea) eta Kontseiluaren Erabakia, 2008ko ekainaren 5ekoa.

(3) L 63 EO, 2003.3.6koa, 1. or. Azken aldiz, Batzordearen 1376/2007 [EE] Erregelamenduak (EO L 307, 2007.11.24koa, 14.or.) aldatu zuen Erregelamendua.

(4) L 63 EO, 2003.3.6koa, 29. or.

(5) L 251 EO, 1992.8.29koa, 13. or. Azken aldiz, Batzordearen 300/2002 [EE] Erregelamenduak (EO L 52, 2002.2.22koa, 1.or.) aldatu zuen Erregelamendua.

(6) Bild. 2006 I-107 or.

689/2008 (EE) Erregelamendua (EBren Egunkari Ofiziala, L 204/1, 2008/7/31koa)

## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

gailuetan aurkeztuta egon daitezke) Hitzarmenean aurreikusitako bi kategorietarako (esaterako pestizidak eta produktu kimiko industrialak) erabilitako esportazio-jakinazpenaren arauen menpe egon behar dira, baldin eta Erkidegoak debekatu edo zorrotz mugatu baditu produktu fitosanitario edo pestizida legez edo erabilera profesionalerako produktu kimiko edo erabilera orokorrerako produktu kimiko legez. Gainera, komenigarria da arau horiek aplikatzea nazioarteko alde aurretiko adostasun oinarrituaren prozedura (ingelesezko PIC siglak, *Prior Informed Consent*) behar duten produktuei ere. Esportaziorako jakinarazpen-prozedura horiek aplikatu behar dira Erkidegotik hirugarren herrialdeetara egiten diren esportazio guztietan, berdin dio Hitzarmena sinatu duten eta bertako prozeduretan parte hartzen duten ala ez. Prozedura hori abian jartzeagatik dituzten kostuak estaltzeko, estatu kideek administrazio-tasak ordaintzea eska dezakete.

(7) Esportatzaile eta inportatzaileek jakinarazi behar dute erregelamendu honetan araututako zenbat produktu kimiko merkaturatzen dituzten nazioartean, era horretan xedapenen eragina eta eraginkortasuna ebaluatu eta kontrolatzeko.

(8) Batzordeak Erkidegoko arauzko neurri irmoak edo produktu kimiko jakin bat modu zorrotzean debekatu edo mugatzen duten estatu kideen berri eman behar dio Hitzarmeneko Idazkaritzari, era horretan nazioarteko PICean sartzeko. Batzordeak egindako jakinarazpen horiek soilik aipatu behar dituzte Hitzarmenak ezarritako irizpideen arabera kasuak. Beharrezkoa denean, jakinarazpen horiek egiteko informazio osagarria jaso behar da.

(9) Erkidegoaren arauzko neurri irmo bat edo estatu kideei buruzko egoera bat irizpideen arabera kasuak ez delako jakinarazi behar ez denean, neurri horri buruzko informazioa jakinarazi behar zaie Hitzarmeneko Idazkaritzari eta Hitzarmeneko gainerako alderdiei, era horretan informazioa trukatzeko.

(10) Halaber, beharrezkoa da Erkidegoak erabakiak hartzea EBra nazioarteko PIC prozeduraren arabera inportatu beharreko produktu kimikoei buruz. Erabaki horiek Erkidegoko legedia aplikagarrian oinarritu behar dira, eta kontuan hartu behar dira estatu kideek ezarritako debeku eta muga zorrotzak. Beharrezkoa bada, Erkidegoko legedian aldaketak egitea proposatu behar da.

(11) Neurriak hartu behar dira Nazioarteko PIC prozedurak araututako produktu kimikoei buruz herrialde inportatzaileek hartutako erabakiak ezagutu ditzaten estatu kideek eta estatu esportatzaileek; baita esportatzaileek erabaki horiek bete ditzaten ere. Gainera, esportazio baztergarriak ez gertatzeko, ez da esportatu behar nazioarteko PIC prozedurak edo Hitzarmeneko irizpideek araututa debekatutako edo mugatutako produkturik, baldin eta alde aurretik herrialde inportatzailearen baimena eskatu eta lortu ez badute, azken hori Hitzarmenaren barne egon ala ez. Aldi berean, Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Antolakundeko (ELGA) kide diren herrialdeetara produktu kimiko jakin bat esportatzeko, betebeharrak horretan salbuespen bat ezarriko da, baldin eta esportazio horretarako baldintza jakin batzuk betetzen badira. Gainera, arazoizko ahalegin guztiak egin arren, herrialde inportatzaileak erantzunik ematen ez badu, kontuan hartu behar dira kasu horiek kontuan hartzeko prozedurak, era horretan epe jakin batean baldintza jakin batzuk betez produktu kimiko jakin batzuk esportatu ahal izateko. Horrez gain, kasu horiek aldi behin ikuskatzeko epea ezarri behar da, baita herrialdearen baimena lortu duten kasuetarako ere.

(12) Batzordeak sortutako datu-basea tresna garrantzitsua da Erregelamendu hau aplikatzeko eta kontrolatzeko.

(13) Gainera, garrantzitsua da esportatutako produktu kimiko guztiek kontserbazio-epe egokia edukitzea, era horretan modu eraginkor eta ziurrean erabili ahal izateko. Beraz, pestiziden kasuan, garapen bidean dauden herrialdeetara esportatzen badira, produktua biltegitzeko informazio egokia eman behar zaio herrialdeari, eta tamaina egokiko ontziak nahiz bilgarri egokiak erabili behar dira, sobran eta biltegitatuta geratzen den produktua zaharkituta ez geratzeko.

(14) Produktu kimikoak dituzten gailuak ez dira sartzen Hitzarmen honen aplikazio-eremuan. Hala ere, produktu kimikoak dituzten gailuak debekatuta edo zorrotz mugatuta badaude Erkidego mailan Hitzarmenean aurreikusitako kategoriatan batean edo bat baino gehiagotan nahiz nazioarteko PIC prozeduran, eta erabiltzean nahiz ezabatzeko gailuen produktu kimiko horiek aska badaitezke, komenigarria da esportazioan jakinarazpen-arauak betetzea. Bestalde, Hitzarmenaren aplikazio-esparrutik kanpo dauden produktu kimikoak dituzten gailu batzuek eta produktu kimiko batzuek kezka handia sortzen dutenez, ez dira inola ere esportatu behar.

(15) Hitzarmenean xedatutakoari jarraiki, hitzarmeneko alderdiek hala eskatzen badute, informazioa eman behar zaie nazioarteko PIC prozedurak araututako produktu kimikoen zirkulazioari buruz.

(16) Segurtasunerako etiketa, ontzi eta gainerako informazioari buruzko Erkidego mailako arauak aplikatu behar dira Hitzarmeneko kide diren herrialdeetara eta gainerako herrialdeetara esportatutako diren produktu kimiko arriskutsuetan, baldin eta arau horiek herrialde inportatzaileak eskatutako baldintza batekin gatazkarik sortzen ez badu, betiere nazioarteko arau aplikagarriak kontuan hartuta.

(17) Arau horiek betetzen direla eta modu eraginkorrean kontrolatzen direla bermatzeko, estatu kideek erakunde bat izendatu behar dute (esaterako, aduanako erakundea), Erregelamendu honek araututako produktu kimikoen inportazio eta esportazioak kontrolatzeko. Batzordeak eta estatu kideek funtsezko papera dute, eta modu koordinatu eta ardaztuan jokatu behar dute. Estatu kideek arau-haustek zigortzeko zigorrak aurrekusi behar dituzte. Aduanetako kontrolak erraztu eta esportatzaile nahiz

## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

erakundeen administrazio-zama gutxitzeko, kode-sistema bat ezarri behar da esportazio-jakinazpenetan aplikagarriak diren arauak betetzen direla egiaztatzeko. Sistema hori derrigorrezkoa izan baino lehen, behin behineko epe labur bat ezarriko da alderdi guztiak sistema horretara ohitzeko denbora izan dezaten.

(18) Informazio-trukaketa, erantzukizun partekatua eta Erkidegoaren, estatu kideen eta hirugarren herrialdeen arteko ahalegin bateratuak sustatu behar dira, era horretan produktu kimikoak ongi kudeatzen direla bermatzeko, hirugarren herrialde horiek Hitzarmenaren barne egon ala ez. Zehazki, laguntza tekniko eman behar zaie garapen bidean dauden herrialdeei eta trantsizioko ekonomia duten herrialdeei, bai zuzenean Batzordearen eta estatu kideen bitartez, bai zeharka, gobernuz kanpoko erakundeen proiektuak diruz lagunduz, bereziki herrialdeei Hitzarmen hau aplikatzeko prestakuntza ematen dieten programak.

(19) Prozedura horiek modu eraginkorrean aplikatzeko, horien jarraipena egin behar da aldian behin. Horretarako, estatu kideek aldizkako txostenak aurkeztu behar dizkiote Batzordeari, eta hark Europako Parlamentu eta Kontseiluari eman behar die informazio hori aldian behin.

(20) Agintari eskudunei, esportazioak kontrolatzen dituzten aduana-agintariei barne, laguntza emateko edo orientabide tekniko emateko agiriak osatu behar dira, Erregelamendu honek xedatutakoari jarraiki.

(21) Erregelamendu hau gauzatzeko beharrezko neurriak onartu behar dira Batzordeari esleituriko gauzatzeko eskumenak baliatzeko prozedurak ezartzen dituen Kontseiluaren 1999ko ekainaren 28ko 1999/468/EE Erabakiaren arabera <sup>(1)</sup>.

(22) Bereziki komenigarria da Batzordeari eskumenak ematea, era horretan: EB mailan arauzko neurri bat hartu ondoren, produktu kimikoak I. eranskineko 1. eta 2. atalean sartzeko neurriak hartzeko; Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2004ko apirilaren 29ko 850/2004 (EE) Erregelamenduak, substantzia kutsatzaile organiko iraunkorrei buruzkoak <sup>(2)</sup>, araututako produktu kimikoak V. eranskineko 1. atalean sartzeko; I. eranskina aldatzeko, baita ohar hauek sartzeko ere; Erkidego mailan esportaziorako debekua duten produktu kimikoak V. eranskineko 2. atalean sartzeko; II., III., IV. eta VI. eranskinak aldatzeko eta V. eranskinean dauden oharrak aldatzeko. Neurri horiek orokorrak direnez, eta Erregelamendu honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatzen dituztenez, eta batzuetan funtsezkoak ez diren elementu berriak ezartzen dituztenez, 1999/468/EE Erabakiaren 5 bis artikuluan aurreikusitako kontrol-erregelamendurako prozeduraren arabera egingo dira.

### HONAKO ERREGELAMENDU HAU ONARTU DUTE:

#### *1. artikulua*

#### **Helburuak**

1. Erregelamendu honen helburuak hauek dira:

a) produktu kimiko arriskutsuen esportazio eta inportazioari buruzko Rotterdameko Hitzarmena aplikatzea (aurrerantzean "Hitzarmena"), hainbat pestizida eta produktu kimiko arriskutsu nazioartean merkaturatu baino lehen bete beharreko baimen oinarritua, ingelesezko "PIC" siglak (*Prior Informed Consent*) aplikatzen duena.

b) Erantzukizun partekatua eta ahalegin bateratua sustatzea produktu kimiko arriskutsuen nazioarteko mugimenduan, era horretan giza osasuna eta ingurumena babesteko gerta daitezkeen kalteen aurka.

c) Produktu kimiko arriskutsuak ingurumeneko ikuspegitik era arrazionalagoan erabiltzen laguntzea.

Lehen paragrafoan aipatzen diren helburuak lortzeko, produktu horiei buruzko informazioa trukatzeko erraztu behar da, produktu horien inportazio eta esportaziorako erabakiak hartzeko Erkidego mailako prozesu bat ezarri, eta bertan hartzen diren erabakiak alderdi guztiei eta beste herrialdeei jakinaraziz, kasuaren arabera.

2. 1. Paragrafoan aipatzen diren helburuez gain, Erregelamendu honek bermatu behar du Kontseiluaren 67/548/EEE Zuzentarauko xedapenak <sup>(3)</sup> eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 199/45/EE Zuzentarauko <sup>(4)</sup> xedapenak, giza osasunarentzako eta

(1) L 184 EO, 1999.7.17koa, 23. or. 2006/512/EE Erabakiak (L 2000 EO, 2006.7.22koa, 11. or) aldatutako Erabakia.

(2) L 158 EO, 2004.4.30ekoa, 7. or. Azken aldiz, Batzordearen 323/2007 [EE] Erregelamenduak (EO L 85, 2007.3.27koa, 3.or.) aldatu zuen Erregelamendua.

(3) Kontseiluaren 67/548/EEE Zuzentaraua, 1967ko ekainaren 27koa, lege, arau eta administrazio-xedapenak substantzia arriskutsuen sailkapen, ontziratze eta etiketatzerako hurbiltzeari buruzkoa (196 EO, 1967.8.16koa, 1. or). Azken buruan Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2006/121/EE Zuzentarauak (L 396 EO, 2006.12.30ekoa, 853. or.) aldatu zuen Zuzentaraua; bertsio zuzendua L 136 EO, 2007.5.29koan, 281. orr.

(4) Kontseiluaren 1999/45/EE Zuzentaraua, 1999ko maiatzaren 31koa, lege, arau eta administrazio-xedapenak substantzia arriskutsuen sailkapen, ontziratze eta etiketatzerako hurbiltzeari buruzkoa (200 EO, 1999.7.30ekoa, 1. or). Azken buruan 1907/2006 [EE] Erregelamenduak (L 396 EO, 2006.12.30ekoa, 1. or.) aldatu zuen Zuzentaraua. Bertsio zuzendua L 136 EO, 2007.5.29koan, 3. or.

## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

ingurumenerako arriskutsuak diren substantzia eta prestakin kimiko arriskutsuen sailkapen, ontziratze eta etiketatzeari buruzkoak, betetzen direla; hain zuzen ere, horrelako substantziak Erkidegoan merkaturatzen direnean, edo estatu kideetatik beste alderdi edo herrialdeetara esportatzen direnean, baldin eta xedapen horiek alderdi edo herrialde horiek eskatzen dituzten baldintzekin gatazkarik sortzen ez badute.

### 2. artikulua

#### **Aplikazio-eremua**

1. Erregelamendu hau eremu hauetan aplikatuko da:

- a) Hitzarmenaren arabera zehaztutako alde zuretik baimenaren prozedurak (aurrerantzean “PIC prozedura”) arautzen dituen produktu kimiko arriskutsu jakin batzuetan.
- b) Erkidegoan edo estatu kide batean debekatuta edo zorrotz mugatuta dauden produktu kimiko arriskutsuetan.
- c) Esportatutako produktu kimikoen sailkapen, ontziratze eta etiketatzean.

2. Erregelamendu hau ez da eremu hauetan aplikatuko:

- a) Kontseiluaren 2004ko abenduaren 22ko 111/2005 (EE) Erregelamenduak, Erkidegoaren eta hirugarren herrialdeen artean gerta daitekeen droga-merkataritza jagoteko arauak ezartzen dituenak, araututako estupefaziante eta substantzia psikotropikoetan <sup>(1)</sup>.
- b) Kontseiluaren 1996ko maiatzaren 13ko 96/29/Euratom Zuzentarauak, erradiazio ionizatzaileek sortzen dituzten arriskuen aurkako osasun-babesa langileei eta populazioari emateko oinarrizko arauak ezartzen dituenak <sup>(2)</sup>, arautzen dituen substantzia eta material erradiaktiboetan.
- c) Europako Parlamentuaren 2006ko apirilaren 5eko 2006/12/EE Zuzentarauak, hondakinei buruzkoak <sup>(3)</sup>, eta Kontseiluaren 1991ko abenduaren 12ko 91/689/EE Zuzentarauak, hondakin arriskutsuei buruzkoak <sup>(4)</sup>, araututako hondakinetan.
- d) Kontseiluaren 2000ko ekainaren 22ko 1334/2000 (EE) Erregelamenduak, erabilera bikoitzeko produktu eta teknologien esportazioak kontrolatzeko EB mailako erregimena ezartzen duenak <sup>(5)</sup>, araututako arma kimikoetan.
- e) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2004ko apirilaren 29ko 882/2004 (EE) Erregelamenduak, pentsu eta elikagaien legedia betetzen dela egiaztatze kontrol ofizialei buruzkoak, eta animalien osasun eta ongizateari buruzkoak <sup>(6)</sup> araututako elikagai eta elikagai-gehigarrietan.
- f) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2002ko urtarrilaren 28ko 178/2002 (EE) Erregelamenduak, elikagaien legediaren oinarri eta baldintza orokorrak onartu, Elikadura-Segurtasunaren Europako Erakundea sortu, eta elikadura-segurtasunari buruzko prozedurak ezartzen dituenak <sup>(7)</sup>, araututako pentsuetan, baita animalien aho bidezko elikadurarako gehigarriak arautzen dituen pentsuetan, erabat edo zati batean eraldatu badira edo ez.
- g) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2001eko martxoaren 12ko 2001/18/EE Zuzentarauak, genetikoki eraldatutako organismoak ingurunean nahita askatzeari buruzkoak <sup>(8)</sup>, araututako genetikoki eraldatutako organismoetan.
- h) Erregelamendu honetako 3. artikuluko 4. paragrafoko b) idatz-zatian aipatutakoak izan ezik, espezialitate farmazeutiko eta animalientzako botiketan, hain zuzen ere, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2001/83/EE Zuzentarauak, 2001eko azaroaren 6koak, giza erabilerarako botiken EB mailako kodea ezartzen duenak <sup>(9)</sup>, eta Europako Parlamentuaren eta

---

(1) L 22 EO, 2005.1.26koa, 1. or.

(2) L 159 EO, 1996.6.29koa, 1. or.

(3) L 114 EO 2006.4.27koa, 9. or.

(4) L 377 EO, 1991.12.31koa, 20. or. Azken buruan Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 166/2006 [EE] Erregelamenduak (L 33 EO, 2006.2.4koa, 1. or.) aldatu zuen Zuzentaraua.

(5) L 159 EO, 2000.6.30ekoa, 1. or. Azken aldiz, 478/2007 [EE, Euratom] Erregelamenduak (L 111 EO, 2007.4.28koa, 13. or.) aldatu zuen Erregelamendua.

(6) L 165 EO, 2004.4.30ekoa, 1. or. Bertsio zuzendua L 191 EO, 2004.5.28koan, 1.or. Azken aldiz, Batzordearen 301/2008 [EE] Erregelamenduak (L 97 EO, 2008.4.9koa, 85. or.) aldatu zuen Erregelamendua.

(7) L 31 EO, 2002.2.1ekoa, 1. or. Azken aldiz, Batzordearen 575/2006 [EE] Erregelamenduak (L 100 EO, 2006.4.8koa, 3. or.) aldatu zuen Erregelamendua.

(8) L 106 EO, 2001.4.17koa, 1. or. Azken buruan 2008/27/EE Zuzentarauak aldatu zuen Zuzentaraua (L 81 EO, 2008.3.20koa, 45. or).

(9) L 311 EO, 2001.11.28koa, 67. or. Azken buruan 2008/29/EE Zuzentarauak aldatu zuen Zuzentaraua (L 81 EO, 2008.3.20koa, 51. or).

## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

Kontseiluaren 2001/82/EE Zuzentarauak, 2001eko azaroaren 6koak, animalientzako botiken EB mailako kodea ezartzen duenak, <sup>(1)</sup> arautzen dituztenetan.

i) Giza osasunari edo ingurumenari kalte egitea ia ezinezkoa den kopuruetan erabilitako produktu kimikoetan, betiere 10 kilo baino gutxiago badira, eta ikerketa edo azterketak egiteko inportatu eta esportatzen badira.

### *3. artikulua*

#### **Definizioak**

Erregelamendu honetan, kontzeptu hauek esanahi hau izango dute:

1) «Produktu kimikoa». 67/548/EE Zuzentaruaren emandako definizioaren arabera, edozein substantzia, huts edo prestakin izan, fabrikatu edo naturatik eskuratutakoa, baina ez organismo biziz osatutakoa. Substantzia hori maila hauetako batean sailkatu behar da:

a) Pestizidak, pestizidetarako formulazio oso arriskutsuak barne;

b) Produktu kimiko industrialak.

2) «Prestakina». Bi substantzia edo gehiagoz osatutako nahasketa edo soluzioa.

3) «Gailua». Produktu kimiko bat duen edozein produktu kimiko, baldin eta Erkidegoko legediak produktu zehatz horren erabilera debekatu edo zorrotz mugatu badu.

4) «Pestizidak». Honako azpimailetan ageri diren produktu kimikoak:

a) Kontseiluaren 91/414/EE Zuzentarauak, 1991ko uztailaren 15ekoak, produktu fitosanitarioak merkaturatzeari buruzkoak <sup>(2)</sup>, araututako pestizidak, hain zuzen ere produktu fitosanitario gisa erabiltzen direnak;

b) bestelako pestizidak, esaterako Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 98/8/EE Zuzentarauak, 1998ko otsailaren 16koak, biozidak merkaturatzeari buruzkoak <sup>(3)</sup>, araututako biozidak; nahiz 2001/82/EE eta 2001/83/EE Zuzentaruak araututako desinfektatzaileak, intsektizidak eta parasitizidak.

5) «Produktu kimiko industrialak». Honako azpimailetan ageri diren produktu kimikoak:

a) erabilera profesionalerako produktu kimikoak;

b) publiko orokorrak erabiltzeko produktu kimikoak.

6) «Esportazio-jakinarazpena behar duen produktu kimikoa». Erkidegoan maila batean edo bat baino gehiagotan debekatutako edo zorrotz mugatutako produktu kimiko oro, eta PIC prozedurak araututako I. eranskinen 1. atalean zehaztutako produktu kimiko oro.

7) «PIC jakinarazpena ezartzeko baldintzak betetzen dituen produktu kimikoa». Erkidegoan edo estatu kide batean maila batean edo bat baino gehiagotan debekatutako edo zorrotz mugatutako edozein produktu kimiko. Erkidegoan maila batean edo bat baino gehiagotan debekatutako edo zorrotz mugatutako produktu kimikoak, I. eranskinen 2. paragrafoan agertzen direnak.

8) «PIC prozeduraren araberako produktu kimikoa». Hitzarmenaren III. eranskinen zerrendan zehazten diren produktu kimikoak eta Erregelamendu honetako I. eranskinen 3. paragrafoan aipatzen direnak.

9) «Debekatutako produktu kimikoa». Hauetako bat:

a) Erkidegoak, gizakien osasuna edo ingurumena babesteko, arauzko neurri finko baten bidez, maila edo azpimaila baten edo gehiagoren barruan, debekatu dituen produktu kimikoak;

---

(1) L 311 EO, 2001.11.28koa, 1. or. Azken buruan 2004/28/EE Zuzentarauak aldatu zuen Zuzentaruak (L 136 EO, 2004.4.30ekoa, 58. or)

(2) L 230 EO, 1991.8.19koa, 1. or. Azken buruan 2008/45/EE Zuzentarauak aldatu zuen Zuzentaruak (L 94 EO, 2008.4.5ekoa, 21. or).

(3) L 123 EO, 1998.4.24koa, 1. or. Azken buruan Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2008/31/EE Erregelamenduak (L 81 EO, 2008.3.20koa, 57. or.) aldatu zuen Zuzentaruak.

## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

b) produktu kimikoak gizakien osasunerako edo ingurumenerako arriskuak sortzen dituela argi frogatzen denean, lehen erabilerarako eskaera ezetsia izan duten produktuak, edota industriak Erkidegoko merkatutik kendutako produktuak, edo aurrerago, jakinarazpen, erregistro edo onarpen-prozesu batean debekatu egiten bada.

10) «Zorrotz mugatutako produktu kimikoa». Hauetako bat:

a) Erkidegoak, gizakien osasuna edo ingurumena babesteko, arauzko neurri finko baten bidez, maila edo azpimaila baten edo gehiagoren barruan, ia erabat debekatu dituen produktu kimikoak, baina oraindik erabilera jakin batzuetarako baimendu egiten direnak;

b) produktu kimikoak gizakien osasunerako edo ingurumenerako arriskuak sortzen dituela argi frogatzen denean, erabilerarako eskaera ia guztiak ezetsita izan duten produktuak, edo industriak Erkidegoko merkatutik kendutako produktuak, edo aurrerago, jakinarazpen, erregistro edo onarpen-prozesu batean debekatu egiten bada;

11) «Estatu kide batek debekatutako edo zorrotz mugatutako produktu kimikoa». Estatu kide batek, arauzko neurri irmo bidez debekatutako edo zorrotz mugatutako produktu kimiko oro.

12) «Arauzko neurri irmoa». Produktu kimiko bat debekatu edo zorrotz mugatzeko egintza legegilea.

13) «Formulazio pestizida oso arriskutsua». Pestizida gisa erabiltzen den edozein produktu kimiko formulatu, erabilera-baldintza normaletan, substantzia horren eraginpean behin edo hainbat alditan egon ondoren, epe motzean osasunean edo ingurunean kaltegarria dela ikusten bada.

14) «Esportazioa»:

a) Hitzarmeneko 23. artikuluko 2. paragrafoko baldintzak betetzen dituen produktu kimiko baten behin-behineko edo behin betiko esportazioa.

b) Hitzarmeneko 23. artikuluko 2. paragrafoko baldintzak betetzen ez dituen produktu kimiko baten berresportazioa, baldin eta Erkidegoko aduana-lurraldeetan produktuak mugitzeko Erkidegotik kanpoko aduana-erregimenik ez badu;

15) «Inportazioa». Erkidegoko aduana-lurraldean produktu kimiko bat fisikoki sartzea, baldin eta Erkidegoko aduana-lurraldeetan produktuak mugitzeko Erkidegotik kanpoko aduana-erregimenik ez badu;

16) «Esportatzailea». Pertsona hauetako bat, fisiko nahiz juridikoa izan:

a) Esportazio-jakinazpenean aipatzen den pertsona, baldin eta pertsona hori alderdi edo herrialde bateko hartzaile batekin sinatutako kontratuaren titularra bada, jakinarazpen hori egiten duen momentuan, eta eskumena badu produktu kimikoa Erkidegoko aduana-lurraldetik kanpo bidaltzeko erabakia hartzeko.

b) Produktu kimikoa Erkidegoko aduana-lurraldetik kanpo bidaltzeko erabakia hartzeko eskumena duen pertsona, oraindik esportazio-kontraturik ez badago, edo kontratuaren titularra ez badago pertsona horren izenean.

c) Esportazioa arautzen duen kontratuak xedatutakoaren arabera, produktu kimikoa eskualdatzeko eskubidea Erkidegotik kanpo dagoen pertsona bati badagokio, eta kontratugilea Erkidegoan badago.

17) «Inportatzailea». Inportazioa Europako Erkidegoko aduana-lurraldean egitean denean, produktu kimiko horren hartzailea den edozein pertsona fisiko edo juridiko.

18) «Hitzarmeneko Alderdia» edo «Alderdia». Eskualdeko integrazio ekonomikoko estatu edo erakundea, non Hitzarmen hau indarrean dagoen, eta Hitzarmen honetan zehaztutako betebeharrak betetzea onartzen duen.

19) «Beste herrialdea». Alderdia ez den edozein herrialde.

#### *4. artikulua*

#### **Izendatutako herrialde mailako agintariak**

Estatu kide bakoitzak agintari bat edo bat baino gehiago izendatuko du; aurrerantzean «izendatutako herrialde mailako agintaria» edo «izendatutako herrialde mailako agintariak». Horien lana Erregelamendu honetan xedatutako administrazio-funtzioak betetzea izango da, baldin eta Erregelamendu hau indarrean jarri baino lehen egin ez badute.

## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

Izendapen horiek Batzordeari jakinaraziko zaizkio, 2008ko azaroaren 1ean gehienez.

### *5. artikulua*

#### **Erkidegoaren partaidetza Hitzarmenean**

1. Batzordearen eta estatu kideen ardura izango da Erkidegoak Hitzarmenean duen partaidetza, bereziki laguntza teknikoa emateko, informazioa trukatzeko edo auziak ebazteko lanak, baita erakunde ordezkatzailleetan eta bozketetan parte hartzeko ere.

2. Erkidegoak Hitzarmenean duen parte-hartzeari buruz, Hitzarmenak PIC prozedurari eta esportazio-jakinazpenei buruz egin beharreko administrazio-lanei dagokienez, Batzordea izango da horretarako izendatutako agintari nagusia; EBren izenean lan egingo du, betiere estatu kideek izendatutako herrialde mailako agintariekin elkarlanean, eta edozein informazio azken horiei kontsultatuz.

Batzordearen ardurak hauek izango dira:

- a) 7. artikuluan xedatutakoari jarraiki, Erkidegoaren esportazio-jakinazpenak Alderdiei eta beste herrialdeei jakinaraztea.
- b) 10. artikuluan xedatutakoari jarraiki, PIC prozeduraren eraginpean egoteko baldintzak betetzen dituzten produktu kimikoei buruzko arazko neurri irmoen jakinarazpenak egitea Hitzarmeneko Idazkaritzari (aurrerantzean «Idazkaritza»).
- c) 11. artikuluari jarraiki, PIC prozedura edukitzeko baldintzak betetzen ez dituzten produktu kimikoengan eragina duten beste arazko neurri irmoei buruzko informazioa jakinaraztea.
- d) Idazkaritzaren informazio orokorragoa jasotzea.

Batzordeak, era berean, Erkidegora egindako PIC prozedurari lotutako produktu kimikoen inportazioei buruzko informazioa ere emango dio Idazkaritzari, 12. artikuluari jarraiki.

Bestalde, Batzordeak koordinatuko ditu Erkidegoak gai hauetan egindako ekarpenak:

- a) Hitzarmena.
- b) Hitzarmeneko 18. artikulua xedatutako Alderdien Hitzarmena prestatzea.
- c) Produktu kimikoak aztertzeako komitea, Hitzarmeneko 18. artikuluko 6. paragrafoan xedatzen dena.
- d) Beste organo ordezkatzailleak.

Premien arabera, estatu kideen hizlariz osatutako sare bat osatuko da agiri teknikoak osatu ahal izateko, besteak beste, Hitzarmeneko 7. artikuluko 3. paragrafoan aipatutako erabakiak hartzeko orientabideak.

3. Batzordeak eta estatu kideek beharrezko ekimenak jarriko dituzte abian, Erkidegoa ongi ordezkatuta egon dadin Hitzarmen hau gauzatzeko organoetan.

### *6. artikulua*

#### **Esportazio-jakinazpena behar duten produktu kimikoak, PIC jakinarazpena edukitzeko baldintzak betetzen dituzten produktu kimikoak eta PIC prozeduraren araberako produktu kimikoak**

1. Erregelamendu honetako I. eranskinean aipatzen diren esportazio-jakinazpenari, PIC jakinarazpenari eta PIC prozedurari buruzko xedapenek araututako produktu kimikoak.

2. I. eranskineko produktu kimikoak 1., 2. eta 3. ataletako hiru produktu-taldeetan bilduko dira, batean edo bat baino gehiagotan.

I. eranskineko 1. atalean aipatutako produktu kimikoak arautzen ditu 7. artikuluan xedatutako esportazio-jakinazpenaren prozedurak, eta horiei buruzko informazio xehatua ematen da, besteak beste, substantziaren izena, zein maila edo azpimaila mugatzen den, zer mugapen-mota ezartzen den eta, beharrezkoa bada, baita informazio osagarria ere; besteak beste, esportazio-jakinazpenerako baldintzetan ezarritako salbuespenak zehaztuko dira.



## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

I. eranskineko 2. atalean dauden produktu kimikoek, 7. artikuluan aipatutako esportazio-jakinazpenak arautzeaz gain, baldintzak betetzen dituzte 10. artikuluan aipatutako PIC prozeduraren arabera jakinarazpena edukitzeko. Produktu horien kasuan, substantziaren izena eta haren erabilera-maila zehazten dira.

I. eranskineko 3. atalean zehaztutako produktu kimikoak PIC prozedurak arautzen ditu eta, horien kasuan, erabilera-maila zehazten da. Horrez gain, beharrezkoa bada, informazio osagarria ere ematen da, besteak beste, esportazio-jakinazpenerako baldintzak.

3. 2. paragrafoan aipatutako zerrendak publikoarentzat eskuragarri egongo dira formatu elektronikoan.

### *7. artikulua*

#### **Esportazio-jakinazpenak Alderdi eta beste herrialdeei**

1. I. eranskineko 1. atalean aipatutako substantzien kasuan, edo substantzia horiek 1999/45/EE Zuzentarauak xedatutako etiketatze-betebehar bat betetzeko moduko kontzentrazioan biltzen badira (nahiz eta beste edozein substantzia ere eduki) 2 eta 8 bitarteko paragrafoak aplikagarriak izango dira.

2. Esportatzaile batek aurreikusi badu 1. paragrafoan aipatutako produktu kimiko bat Erkidegotik Alderdi batera edo beste herrialde batera lehen aldiz esportatzea, edo esportazio hori Erregelamendu hau indarrean jarri ondoren egin behar bada, esportatzaileak esportazio-jakinazpen bat bidaliko dio bere estatu kideak izendatutako herrialde mailako agintariari, produktu hori esportatzeko egunetik hogeita hamar eguneko epean gehienez. Gero, urte zibil bakoitzean, esportatzaileak produktu kimiko horren lehen esportazioaren jakinarazpena bidaliko dio izendatutako herrialde mailako agintariari, gehienez esportazioa egin baino hamabost egun lehenago. Jakinarazpenak II. eranskinean zehaztutako baldintzak bete beharko ditu.

Izendatutako herrialde mailako agintariak egiaztatuko du esportatzaileak bidalitako informazioak II. eranskinean xedatutakoa betetzen duen, eta ahalik eta azkarren jakinaraziko dio Batzordeari.

Batzordeak beharrezko neurriak hartuko ditu Alderdi inportatzaileak edo herrialde hartzaileko erakunde eskudunak jakinarazpen hori jasotzeko gehienez produktu kimikoa lehen aldiz esportatzeko eguna baino hamabost egun lehenago eta, gero, hurrengo urte zibiletan, lehen esportazioa egin baino lehen. Betebehar hori beti aplikatuko da, produktu kimiko hori Alderdi inportatzailean edo beste herrialde hartzaile batean erabiliko den arren.

Esportazioaren jakinarazpen bakoitza erregistratuta geratuko da, eta bakoitzak esportazio-erreferentziaren identifikazio-zenbaki bat izango du Batzordearen datu-basean. Datu-base horretan eskuragarri egongo da urte zibil bakoitzean esportatutako produktu kimikoen eta Alderdi inportatzaile nahiz beste herrialde hartzaileen zerrenda eguneratu bat. Zerrenda hori estatu kideek izendatutako herrialde mailako agintarien artean ere banatuko da, beharrezkoa bada.

3. Produktu kimikoa I. eranskineko 1. atalean sartu ondoren, 30 eguneko epean, Batzordeak lehen esportazioaren hartu-agiririk jasotzen ez badu Alderdi inportatzailearen eskutik edo beste herrialde hartzailearen eskutik, bigarren jakinarazpena bidaliko du. Batzordeak bere esku dagoen guztia egingo du Alderdi inportatzaileak edo beste herrialde hartzaileko agintari eskudunak bigarren jakinarazpena jaso dezan.

4. Jakinarazpen berri bat bidaliko da baldin eta esportazioak substantzia horren merkaturatze, erabilera eta etiketatzeari buruzko Erkidegoko legedian aldaketak egin ondoren egiten badira, edo esportatu beharreko prestakina nolabait aldatu eta horren etiketatzea aldatzen bada. Jakinarazpen berria II. eranskinean xedatutakoaren arabera izan beharko da eta, halaber, zehaztu beharko da alde zuzeneko jakinarazpen baten aldaketa den.

5. Produktu kimiko baten esportazioan atzerapenik gertatzen bada, eta horrek larrialdi-egoera bat sortzen badu, Alderdi inportatzaileko edo beste herrialde hartzaileko osasun publikoa edo ingurumena arriskuan jarritz, ezingo dira 2., 3., eta 4. paragrafoetako baldintzak erabat edo zati batean aplikatu, betiere estatu kide esportatzaileak erabakitzen duen irizpidea erabiliz, Batzordeari kontsulta egin ondoren.

6. 2., 3. eta 4. paragrafoetan xedatutako betebeharrak ezeztatuta geratuko dira baldintza hauek betetzen badira:

a) PIC prozeduraren arabera produktu kimiko bihurtzen bada.

b) Hitzarmeneko Alderdi den herrialde inportatzaileak Hitzarmeneko 10. artikuluko 2. paragrafoan xedatutakoaren arabera erantzuna bidaltzen badu Idazkaritzara, non produktu kimikoa inportatzea onartzen duen ala ez zehazten den.

c) Idazkaritzak erantzuna jakinarazten badio Batzordeari, eta informazio hori estatu kideei bidaltzen bazaie.

## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

Lehen paragrafoa ez da aplikatuko Hitzarmenaren Alderdi den herrialde inportatzaileak hala eskatzen badu, adibidez, inportazioari buruzko erabakian edo beste edozein modutan, Alderdi esportatzaileak esportazioak jakinarazten jarraitzea nahi duela.

2., 3. eta 4. paragrafoetan xedatutako betebeharrak ere ezeztatuta geratuko dira baldintza hauek betetzen badira:

a) Alderdi inportatzaileak izendatutako herrialde mailako agintariak edo beste herrialde hartzaileko agintari eskudunak ezabatu badu produktu kimikoa esportatu aurretik jakinarazpena egiteko betebeharra.

b) Batzordeak jaso badu Idazkaritzak edo Alderdi inportatzaileak izendatutako herrialde mailako agintariak edota beste herrialde hartzaileko agintari eskudunak bidalitako informazioa, eta informazio hori estatu kideei bidali badie, eta Interneten argitaratu badu.

7. Batzordeak, estatu kideek izendatutako herrialde mailako agintariak eta esportatzaileak esportatutako produktu kimikoei buruz eskuragarri dagoen informazioa bidaliko die hala eskatzen duten Alderdi inportatzaileei eta beste herrialde hartzaileei.

8. Estatu kideek sistemaren bat ezar dezakete, esportatzaileak esportazio-jakinazpen eta onarpen-eskaera bakoitzagatik administrazio-tasak ordain ditzaten, artikuluko 2., 3., eta 4. paragrafoetan eta 13. artikuluko 3., 6., eta 7. paragrafoetan xedatutako prozedurak abian jartzeagatik sortutako kostuak errekuperatzeko.

### *8. artikulua*

#### **Alderdien eta beste herrialdeen eskutik jasotako esportazio-jakinazpenak**

1. Batzordeari bidaliko zaizkio Alderdi bateko herrialde mailako izendatutako agintariak edo beste herrialde bateko agintari eskudunak produktu kimiko bat Erkidegora esportatzeko egindako esportazio-jakinazpenak, baldin eta Alderdi edo beste herrialde horretako legediaren arabera, produktu hori debekatuta edo zorrotz mugatuta badago fabrikatu, erabili, manipulatu, kontsumitu, garraiatu edo saltzeko. Jakinarazpen hori Batzordeak kudeatutako datu-basearen bitartez argitaratuko da formatu elektronikoan.

Alderdi edo beste herrialde bakoitzak bidalitako produktu kimiko bakoitzaren esportazioaren lehen jakinarazpena hartu izana adieraziko du Batzordeak.

Hartu-agiri hori jasotzen duen estatu kideko agintari eskudunak jasoko du Batzordeak jasotako beste edozein jakinarazpenaren kopia, baita eskuragarri dagoen informazio guztia ere. Beste estatu kideek aukera dute jakinarazpen horien kopia jasotzeko, hala eskatzen badute.

2. Estatu kideek izendatutako herrialde mailako agintariak esportazio-jakinazpen bat jasotzen badute Alderdi bateko edo beste herrialde bateko agintari eskudunen eskutik, zuzenean edo zeharka, ahalik eta azkarren bidali beharko diote Batzordeari, eskuragarri dagoen informazio guztiarekin batera.

### *9. artikulua*

#### **Produktu kimikoen esportazio eta inportazioari buruzko informazioa**

1. Honakoak esportatzen dituen bakoitzak:

— I. eranskinean zehaztutako substantziak,

— substantzia horiekin egindako prestakinak, 1999/45/EE Zuzentarauak xedatutakoaren arabera, horien kontzentrazioa dela-eta etiketatze-mota berria egin behar bada (berdin dio beste substantziarik dagoen ala ez), edo

— I. eranskineko 2. edo 3. atalean aipatutako substantziak dituzten produktuak, baldin eta substantzia horiek 1999/45/EE Zuzentarauak xedatutako etiketatze-betebehar bat betetzeko moduko kontzentrazioan biltzen badira, edo prestakin horiek erreakzionatu gabeko moduan eginda badaude (berdin dio beste substantziarik dagoen ala ez),

urteko lehen hiruhilekoan, bere estatu kideak izendatutako herrialde mailako agintariari jakinarazi beharko dio produktu kimiko horren zer kopuru esportatu duen aurreko urtean, bai substantzia gisa bai prestakin edo gailuetan, Alderdi bakoitzera edo beste herrialde bakoitzera. Informazio horrez gain, zerrenda batean zehaztu beharko du epe horretan produktu kimiko hori zein inportatzailei bidali zaion, eta zerrenda horretan azaldu beharko dira inportatzaile bakoitzaren izena eta helbidea. 13. artikuluko 7. paragrafoan xedatzen den moduan, informazio horretan, esportazio bakoitza modu berezian aipatuko da.

## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

Erkidegoko inportatzaile bakoitzak informazio bera emango du EB barnean inportatuko kopuruei buruz.

2. Batzordeak edo bere estatu kideko herrialde mailako agintariak hala eskatuta, esportatzaile edo inportatzaileak produktu kimikoei buruzko edozein informazio osagarri eman beharko du, Erregelamendu hau aplikatzeko.

3. Estatu kide bakoitzak, urtean behin, III. eranskinean xedatutakoaren arabera informazio osoa bidali beharko dio Batzordeari. Batzordeak informazio horren laburpen bat egingo du Erkidego mailan, eta konfidentziala ez den informazioa bere datu-basean argitaratuko du Internet bidez.

### *10. artikulua*

#### **Hitzarmenaren arabera debekatuta edo era zorrotzean mugatuta dauden produktu kimikoei buruzko jakinarazpenak**

1. Batzordeak idatziz jakinaraziko dio Idazkaritzari zein produktu kimikok betetzen dituzten PIC jakinarazpena izateko baldintzak.

2. Batzordeak PIC jakinarazpena edukitzeko baldintzak betetzen dituzten produktu kimikoen berri emango dio Idazkaritzari, I. eranskineko 2. paragrafoan sartzen doazen heinean. Produktu kimiko bat debekatu edo zorrotz mugatzeko EB mailako arauzko neurri irmoa hartu ondoren, ahalik eta azkarren bidali beharko da erabaki horren jakinarazpena, gehienez erabakia hartu eta 90 egunera.

3. Jakinarazpen horretan eman beharko da IV. eranskinean xedatutako beharrezko informazio guztia.

4. Jakinarazpenaren inguruan lehenetsunak ezarri ondoren, Batzordeak kontuan hartuko du produktu kimikoa jada I. eranskineko 3. paragrafoan aipatzen den, eta zenbateraino bete daitezkeen IV. eranskinean aurreikusitako informazio-betebeharrak; baita produktu horrek zein arrisku dituen ere, batez ere garapen bidean dauden herrialdeentzat.

Produktu kimiko batek PIC jakinarazpena izateko baldintzak betetzen baditu, baina IV. eranskineko baldintzak betetzeko adinako informaziorik ez badago, esportatzaile edo inportatzaile identifikatuek eskuragarri duten informazio guztia bidaliko diote Batzordeari, Batzordeak hala eskatzen badie, baita produktu kimikoen kontrolerako nazioarteko eta herrialde mailako programetako ere, gehienez eskaera egin eta 60 eguneko epean.

5. 1. eta 2. paragrafoen arabera egindako arauzko neurri irmo bat jakinarazi ondoren, hura aldatzen bada, Batzordeak horren berri emango dio Idazkaritzari, arauzko neurri irmo berria indarrean sartu eta gehienez 60 eguneko epean.

1. eta 2. paragrafoetan xedatutakoaren arabera, lehen jakinarazpena bidaltzean eskuragarri ez zegoen informazio guztia eman beharko du Batzordeak.

6. Edozein Alderdik edo Idazkaritzak hala eskatuta, Batzordeak, ahal duen heinean, produktu kimikoari edo arauzko neurri irmoari buruzko informazio osagarria emango du.

Batzordeak hala eskatzen duenean, estatu kideek informazio hori biltzeko beharrezko laguntza emango dute.

7. Beste Alderdiek debekatu edo zorrotz mugatutako produktu kimikoei buruzko jakinarazpenak Idazkaritzatik Batzordera iristen direnean, Batzordeak estatu kideei emango die informazio hori.

Hala dagokionean, Batzordeak, estatu kideekin elkarlanean, aztertuko du premiarik badagoen Erkidego mailan gizakien osasunerako edo ingurumenerako arrisku onartezinak ekiditeko neurriak ezartzeko.

8. Estatu kide batek herrialde mailako arauzko neurri irmo bat hartzen badu, betiere EB mailak dagokion legedia betez, produktu kimiko bat debekatu edo zorrotz mugatzeko, Batzordeari informazio hori bidali beharko dio. Batzordeak estatu kideei bidaliko die informazio hori. Informazio hori eskuragarri dutenetik lau asteko epean, estatu kideek PIC jakinarazpen posible bati buruzko oharrik bidaltzeko aukera izango dute, batez ere produktu kimiko horrek beren herrialdean duen arau-egoerari buruzkoak, eta horiek bidaliko dizkie Batzordeari eta neurri irmoa hartu duen estatu kideari. Ohar horiek aztertu ondoren, aipatutako estatu kideak honako hau jakinaraziko dio Batzordeari:

— artikulua honetan xedatutakoaren arabera, Idazkaritzari jakinarazi behar dion, edo

— 11. artikuluan xedatutakoaren arabera, informazioa Idazkaritzara bidali behar duen.

## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

### *11. artikulua*

#### **PIC jakinarazpenerako baldintzak betetzen ez dituzten debekatutako edo zorrotz mugatutako produktu kimikoei buruzko zer informazio bidali behar den Idazkaritzara**

Produktu kimiko bat I. eranskinen 1. atalean bakarrik ageri bada edo, 10. artikuluko 8. paragrafoko bigarren puntuko xedapeneraren arabera, estatu kide batek igorritako informazioa jasotzen bada, Batzordeak dagokion arauzko neurri irmoari buruzko informazioa bidaliko dio Idazkaritzari, era horretan, beharrezkoa bada, Hitzarmeneko beste Alderdiei bidaltzeko.

### *12. artikulua*

#### **Produktu kimikoen inportazioari lotutako betebeharrak**

1. Batzordeak ahalik eta azkarren bidaliko dizkie estatu kideei Idazkaritzatik erabakiak hartzeko orientabide gisa bidaltzen diren dokumentu guztiak.

24. artikuluko 2. paragrafoan xedatutako kontsulta-prozeduraren arabera, Batzordeak erabaki bat hartuko du behin-behineko edo behin betiko erantzun gisa, dagokion produktu kimikoaren etorkizuneko inportazioari buruz. Jarraian, hartutako erabakia lehenbailehen jakinaraziko dio Idazkaritzari, Idazkaritzak erabakia hartzeko orientabidea bidalitako egunetik gehienez hurrengo bederatz hilabeteetan.

Produktu kimiko batek beste mugapen batzuk baditu, edo mugapen horiek Erkidegoko legediaren arabera aldatu badira, Batzordeak inportazioari buruzko erabakia berrikusiko du 24. artikuluko 2. paragrafoan xedatutako kontsulta-prozedura erabiliz eta, hura berrikusi ondoren, Idazkaritzari jakinaraziko dio.

2. Estatu kide batek edo estatu kide bat baino gehiagok debekatutako edo zorrotz mugatutako produktu kimiko bat bada, alde zuzen estatu kide interesatuek eskaera idatziz egin ondoren, Batzordeak kontuan izango du informazio hori, inportazioari buruzko erabakia hartzean.

3. 1. paragrafoan xedatutako erabakiak, hain zuzen ere inportazioari buruzkoak, produktu kimikoaren maila edo maila ezberdinei buruzkoak izango dira erabakiak hartzeko orientabidea den dokumentuan.

4. Idazkaritzari produktu kimiko baten inportazioari buruzko erabakia jakinaraztean, Batzordeak erabaki hori hartzeko erabilitako lege- eta administrazio-neurriak emango ditu.

5. Erkidegoan, herrialde mailan izendatutako agintari bakoitzak eskuragarri jarriko dituzte bere eskumeneko interesatu guzientzat 1. paragrafoan aipatutako erabakiak, produktu kimiko baten inportazioari buruzkoak, lege- eta administrazio-xedapenei jarraiki.

6. Hala dagokionean, Batzordeak, estatu kideekin elkarlanean, aztertuko du premiarik badagoen Erkidego mailan gizakien osasunerako edo ingurumenerako arrisku onartezinak ekiditeko neurriak ezartzeko, horretarako kontuan hartuz erabakiak hartzeko orientabide-dokumentuan jasotako informazioa.

### *13. artikulua*

#### **Produktu kimikoen esportazioari lotutako betebeharrak, esportazio-jakinazpenez gain egin beharrekoak**

1. Batzordeak lehenbailehen bidaliko die estatu kideei eta Europako industria-elkarteei, bai zirkular gisa bai beste edozein modutan, Idazkaritzak PIC prozeduraren arabera produktu kimikoei buruz bidalitako informazioa, baita Alderdi inportatzaileek produktu kimiko horiek inportatzeko ezarritako baldintzei buruz hartutako erabakiei buruzkoa ere. Horrez gain, Hitzarmeneko 10. artikuluko 2. paragrafoan xedatutakoaren arabera, erantzunik bidali bada, kasu horiei buruzko informazioa bidaliko die estatu kideei. Batzordeak inportazioaren esparruan hartutako erabakiei buruzko informazio guztia gordeko du, identifikazio-zenbaki bat jarriko dio inportazio-erabaki bakoitzari eta bere datu-basean gordeko du. Datu-base hori publikoki kontsultatu ahal izango da Interneten, eta nahi duen guztiak ikusi ahal izango du informazio hori.

2. Batzordeak Europako Erkidegoko Nomenklatura Konbinatuaren kode bat ezarriko dio I. eranskinen produktu kimiko bakoitzari. Munduko Aduana Erakundeko sistema bateratutako nomenklaturan nahiz Europako Erkidegoko Nomenklatura Konbinatuan egin daitezkeen aldaketek produktu kimikoetan eragina badute, kode horiek berrikusi egingo dira.

3. Estatu kide bakoitzak bere jurisdikzioaren barnean dauden interesatuei jakinarazi egingo dizkie 1. paragrafoaren arabera Batzordeak bidalitako erantzunak.

## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

4. Esportatzaileek produktu kimiko baten inportazioari buruzko erabakiak bete beharko dituzte, Idazkaritzak 1. paragrafoaren arabera erabakia jakinarazten duenetik gehienez sei hilabeteko epean.

5. Batzordeak eta estatu kideek laguntza emango diete laguntza eskatu duten Alderdi inportatzaileei, hala badagokio, produktu kimiko jakin baten inportazioari buruzko erantzuna Idazkaritzari emateko informazioa biltzeko.

6. I. eranskinen 2. edo 3. atalean aipatutako substantzien kasuan, substantzia horiek 1999/45/EE Zuzentarauak xedatutako etiketatze-betebehar bat betetzeko moduko kontzentrazioan biltzen badira, edo prestakin horiek erreakzionatu gabeko moduan eginda badaude, nahiz eta beste edozein substantzia ere eduki, ez dira esportatuko, baldin eta baldintza hauetako bat betetzen ez bada:

a) esportatzaileak inportazioarako baimena eskatu eta lortu badu Alderdi inportatzaileak izendatutako herrialde mailako agintariaren edo beste herrialde inportatzaileko agintari eskudunaren eskutik, izendatutako herrialde mailako agintariaren bitartez, eta aldeztatik Batzordeari kontsulta eginez;

b) I. eranskinen 3. paragrafoan aipatutako produktu kimikoen kasuan, Idazkaritzak 1. paragrafoaren arabera bidalitako azken zirkularrean Alderdi inportatzaileak inportazioa onartu duela adierazi badu.

I. eranskinen 2. paragrafoan aipatutako produktu kimikoak ELGAko herrialdeetara esportatu behar badira, esportatzaileak izendatutako herrialde mailako agintariak erabakiko du kasuz kasu produktu kimiko horren berariazko baimena behar duen, aldeztatik Batzordeari kontsulta egin ondoren, baldin eta produktu hori ELGAko herrialde jakin batera inportatzean, horretarako baimena badu edo ELGAko herrialde horretan erregistratuta edo baimenduta badago.

a) idatz-zatiaren arabera berariazko baimena eskatzen denean, Batzordeak edo esportatzaileak izendatutako herrialde mailako agintariak 30 eguneko epean eskaeraren erantzunik jaso ez badu, Batzordeak oroitza bat bidaliko du. Hala badagokio, 30 eguneko epean erantzunik eman ez bada, Batzordeak nahi bezain beste oroitza bidali ahal izango ditu.

7. I. eranskinen 2. eta 3. paragrafoetan zerrendatutako produktu kimikoen kasuan, izendatutako herrialde mailako agintariak edo esportatzaileak erabakiko du kasuz kasu esportazioa egin daitekeen, aldeztatik Batzordeari kontsulta egin ondoren, baldin eta arrazoizko ahalegin guztiak egin ondoren erantzunik eman ez bazaio berariazko baimenaren eskariari, 6. paragrafoko a) idatz-zatian xedatutakoari jarraiki, 60 eguneko epean, eta Alderdi inportatzaileak edo hirugarren herrialde inportatzaileak frogatzen badu produktu kimiko horrek baimena duela edo erregistratuta edo baimenduta dagoela.

I. eranskinen 3. ataleko produktu kimikoen esportazioari buruzko erabaki bat hartzean, izendatutako herrialde mailako agintariak, aldeztatik Batzordeari kontsulta egin ondoren, aztertuko du Alderdi inportatzailean edo beste herrialde batean produktu kimiko hori erabiltzeko gizakien osasunean eta ingurunean izan dezakeen eragin posiblea.

8. 6. paragrafoko a) idatz-zatiaren arabera lortutako berariazko baimen horrek edo 7. paragrafoan xedatutakoaren arabera emandako baimenak balioa izateko, Batzordeak aldiaren behin egiaztatu behar du, aldeztatik estatu kideei kontsulta egin ondoren, era honetan:

a) 6. paragrafoko a) idatz-zatiaren arabera eskuratutako berariazko baimenaren kasuan, baimena eman eta hirugarren urte zibileren bukaeran, berariazko baimen berri bat eskatu beharko da, baldin eta aurkakoa esaten ez bada;

b) bien bitartean eskaeraren erantzunik jaso ez bada, 7. paragrafoaren arabera eskuratutako baimen bakoitzak 12 hilabeteko balioa izango du, eta epe hori igaro ondoren, beste berariazko baimen bat eskatu beharko da.

a) idatz-zatian aipatutako kasuetan, esportazioak egiten jarrai daiteke baimen berria lortzeko erantzunaren zain dagoen bitartean, betiere 12 hilabeteko epea gainditu gabe.

Batzordeak kudeatuko ditu eskaera berri guztiak.

9. Batzordeak berariazko baimen-eskaera guztiak bere datu-basean gordeko ditu, baita emandako erantzunak eta onartutako baimenak ere. Eskuratutako berariazko baimen bakoitzak erreferentziako identifikazio-zenbaki bat izango du, eta baimen horren baldintzei, datei eta abarrei buruzko informazio guztia erregistratuko du. Konfidentziala ez den informazio guztia modu publikoan Interneten egongo da kontsultagarri.

10. Produktu kimiko bat iraungitzeko sei hilabete falta badira, ez da esportatuko, baldin eta iraungitze-data jakin bat badago edo ekoizpen-daren arabera kalkulatu badaiteke, betiere produktuaren berezko ezaugarriak direla-eta data hori kalkulatu ezinezkoa ez bada. Pestiziden kasuan, esportatzaileak beren produktuen ontziak eta bilgarriak optimizatzen saiatuko dira, era horretan zaharkituta geratzeko arriskua gutxitzeko.

## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

11. Pestizidak esportatzen direnean, esportatzaileek bermatuko dute produktuaren etiketan Alderdi inportatzaile edo herrialde hartzaileko klima-baldintzetan produktua biltegitatu eta egonkor mantentzeko baldintzei buruzko informazio zehatza ematen dela. Gainera, pestizidak Erkidegoko legediaren arabera garbitasun-mailarekin esportatzen direla bermatu beharko da.

### *14. artikulua*

#### **Produktu kimiko batzuen eta produktu kimikodun gailu batzuen esportazioa**

1. I. eranskineko 2. edo 3. atalean aipatutako substantziak dituzten gailuen kasuan, 7. artikuluan xedatutako prozedurak arautuko ditu, baldin eta substantzia horiek 1999/45/EE Zuzentarauak xedatutako etiketatze-betebehar bat betetzeko moduko kontzentrazioan biltzen badira, edo prestakin horiek erreakzionatu gabeko moduan eginda badaude, nahiz eta beste substantziaren bat ere eduki.

2. Ez dira esportatuko Erkidegoan osasunerako edo ingurumenerako arriskutsuak diren produktuak, V. eranskinean ageri direnak, eta ondorioz, debekatuta daudenak.

### *15. artikulua*

#### **Joan-etorriko mugimenduei buruzko informazioa**

1. VI. eranskinean ageri dira PIC prozedurak araututako produktu kimikoen joan-etorriko mugimenduei buruzko informazioa eskatzen duten Hitzarmeneko Alderdiak eta, ondoan ageri da Alderdi bakoitzak Idazkaritzari eskatutako informazioa.

2. I. eranskineko 3. paragrafoan ageri den produktu kimiko bat VI. eranskinean ageri den Hitzarmeneko Alderdi bateko lurraldetik igaro behar bada, esportatzaileak, ahal duen heinean, estatu kideak izendatutako herrialde mailako agintariari emango dio Hitzarmeneko Alderdi horrek eskatutako informazioa, betiere VI. eranskinean xedatutakoari jarraiki, eta joan-etorriko mugimendu hori hasi baino 30 egun lehenago, eta handik aurrera egingo den joan-etorriko mugimendu bakoitzaren ondoren, gehienez zortzi eguneko epean.

3. Estatu kideak izendatutako herrialde mailako agintariak 2. paragrafoaren arabera esportatzaileak emandako informazioa bidaliko dio Batzordeari, eskuragarri duen informazio osagarri guztiarekin batera.

4. Batzordeak 3. paragrafoan xedatutakoaren arabera bidaliko die informazioa hura eskatu duten Hitzarmeneko Alderdietako herrialde mailako agintariei, baita beste edozein informazio ere, joan-etorriko lehen mugimendua gertatu baino hamabost egun lehenago, eta beste edozein mugimendu egin baino lehenago.

### *16. artikulua*

#### **Esportatutako produktu kimikoekin batera bidali beharreko informazioa**

1. Esportaziorako produktu kimikoek 67/548/EEE Zuzentarauan, 1999/45/EE Zuzentarauan, 91/414/EEE Zuzentarauan eta 98/8/EE Zuzentarauan xedatutako ontziratzeko eta etiketatzei buruzko neurriak bete beharko dituzte, baita gai horri buruzko EB mailako beste edozein arauk xedatutakoa ere.

Lehen paragrafoa Alderdi inportatzaileak edo beste herrialde hartzaileak zehaztutako xedapen zehatzen kalterik gabe ulertuko da, eta kontuan hartuko dira nazioartean aplikagarriak diren arauak ere.

2. Hala dagokionean, I. eranskineko 1. paragrafoan aipatu bezala, produktu kimikoen iraungipen-data eta ekoizpen-data jarriko dira etiketan, eta beharrezkoa bada baita klima-eremu ezberdinei dagozkion iraungipen-datak ere.

3. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2006ko abenduaren 18ko 1907/2006 (EE) Erregelamendua, prestakin eta substantzia kimikoak ebaluatu, baimendu eta mugatzei buruzkoak (REACH), Substantzia eta Prestakin Kimikoen Europako Agentzia sortzen duenak <sup>(1)</sup>, xedatutakoaren arabera, segurtasun-datuei buruzko fitxa bat gehitu beharko da 1. paragrafoan aipatutako produktu kimikoak esportatzen direnean. Esportatzaileak segurtasun-datu horiek osatutako fitxak bidaliko dizkio inportatzaile bakoitzari.

---

(1) L 396 EO, 2006.12.30ekoa, 1. or. Bertsio zuzendua L 136 EO, 2007.5.29koan, 3.or. Batzordearen 1354/2007 [EE] Erregelamendua (L 304 EO, 2007.11.22koa, 1. or.) aldatu zuen Erregelamendua.

## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

4. Etiketan eta segurtasun-datuaren fitxan ageri den informazioa, ahal den heinean behintzat, produktua erabiliko den eskualde edo lekuko hizkuntza ofizialean edo ofizialetan idatzita egon beharko da.

### *17. artikulua*

#### **Estatu kideetako agintariak eta esportatzaile arduradunek inportazioa eta esportazioa kontrolatzeko dituzten betebeharrak**

1. Estatu kide bakoitzak izendatutako agintariak, besteak beste aduanako agintariak, I. eranskinean ageri diren produktu kimikoen inportazio eta esportazioa kontrolatu beharko dute, baldin eta Erregelamendu hau indarrean jarri baino lehen egin ez badute.

Batzordeak eta estatu kideek modu fokalizatu eta koordinatuan lan egingo dute, esportatzaileek Erregelamendu hau betetzen dutela egiaztatzeko.

Estatu kide bakoitzak, agintariak esparri horretan izandako jarduerak azalduko dituzte, 21. artikuluko 1. paragrafoko prozeduren funtzionamenduari buruzko aldizkako txostenetan.

2. Esportatzaileek, beren esportazio-jakinazpenean (administrazio dokumentu bateratuen 44. laukitxoan edo esportazio-adierazpen elektronikoan), Kontseiluaren 1992ko urriaren 12ko 2913/92 (EEE) Erregelamenduak, EB mailako aduana-kodea onartzen duenak <sup>(1)</sup>, 161. artikuluko 5. paragrafoan xedatutakoaren arabera, Erregelamendu honetako 7. artikuluko 2. paragrafoan edo 13. artikuluko 1. edo 9. paragrafoetan aipatutako identifikazio-zenbakiak zehaztu beharko dituzte beharrezkoa denean, era horretan bermatuz esportatzaileek bete behar dituzten betebeharrak betetzen direla.

### *18. artikulua*

#### **Zehapenak**

Estatu kideek Erregelamendu honetako xedapenak ez betetzeagatik aplikagarria den zehapen-erregimena zehaztuko dute, eta beharrezko neurri guztiak hartuko dituzte xedapen horiek behar bezala aplikatzen direla bermatzeko. Zigor edo zehapen horiek eraginkorrak, proportzionatuak eta atzera-eragileak izan behar dira. Erregelamendu hau indarrean jarri baino lehen egin ez badute, estatu kideek Batzordeari jakinaraziko dizkiote neurri horiek, gehienez 2009ko abuztuaren 1ean. Halaber, aldaketak egin ondoren, horiek lehenbailehen jakinaraziko dizkiote Batzordeari.

Estatu kideek, Batzordeak hala eskatuta, zigorrean buruzko informazio guztia eman beharko dute.

### *19. artikulua*

#### **Informazioa trukatzea**

1. Batzordeak eta estatu kideek, beharrezkoa bada, Erregelamendu honek araututako produktu kimikoen informazio zientifikoa, teknikoa, ekonomikoa eta juridikoa emango dute, baita informazio toxikologikoa, ekotoxikologikoa eta segurtasunari buruzko informazioa ere.

Batzordeak, beharrezkoa bada, estatu kideen laguntzarekin, hau bermatu beharko du:

- a) Hitzarmenaren helburuei lotutako arauzko neurri irmoei buruz eskuragarri dagoen informazio publiko guztia igortzen dela, eta
- b) Alderdiei eta beste herrialdeei, zuzenean edo Idazkaritzaren bitartez, jakinarazten zaizkiela produktu kimiko baten erabilera bat edo bat baino gehiago zorrotz mugatzen duten neurriak.

2. Batzordeak eta estatu kideek beste Alderdi edo herrialdeek igorritako informazio konfidentziala babestu beharko dute, elkarren artean hitzartutakoaren arabera.

3. Erregelamendu honek xedatutakoaren arabera, informazioa igortzerakoan, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2003/4/EE Zuzentarauak, 2003ko urtarrilaren 28koak, ingurumenari buruzko informaziorako sarbide publikoari buruzkoak <sup>(2)</sup>, xedatutakoaren arabera, gutxienez informazio hau ez da konfidentzialtzat joko:

---

(1) L 302 EO, 1992.11.19koa, 1. or. Azken aldiz, 478/2007 [EE, Euratom] Erregelamenduak (L 111 EO, 2006.12.20koa, 1. or.) aldatu zuen Erregelamendua.

(2) L 41 EO, 2003.2.14koa, 26. or.

## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

- a) II. eta IV. eranskinetan aipatzen den informazioa;
- b) 16. artikuluko 3. atalean aipatzen diren segurtasun-datuen fitxetan agertzen den informazioa;
- c) produktu kimikoaren iraungitze-data;
- d) produktu kimikoaren ekoizpen-data;
- e) ardura-neurriei buruzko informazioa, arriskuak, arrisku horien izaera eta dagozkion segurtasun-oharrak;
- f) entsegu toxikologiko eta ekotoxikologikoen emaitzak;
- g) produktu kimikoak amaitu ondoren, ontziak nola manipulatu behar diren adierazten duen informazioa.

Estatu kideek egindako ekarpenak oinarritzat hartuta, Batzordeak horien eskutik jasotako informazioaren laburpena egingo du aldian behin.

### *20. artikulua*

#### **Laguntza teknikoa**

Batzordeak eta estatu kideek izendatutako herrialde mailako agintariek, bereziki garapen bidean dauden herrialdeen eta trantsizioko ekonomia duten herrialdeen ekonomien premiak kontuan hartuz, elkarlanean jardungo dute laguntza teknikoa emateko, baita prestakuntza ere, era horretan lor ditzaten herrialde horietan produktu kimikoak horien bizi-ziklo osoan ongi kudeatzeko azpiegitura, gaitasuna eta eskarmentua.

Herrialde horiek Hitzarmena aplikatu dezaten, gehiago sustatuko da laguntza teknikoa, produktu kimikoei buruzko informazio teknikoa emanez; adituen arteko informazio-trukea sustatuko da, era horretan herrialde mailako agintariak sortzen eta mantentzen laguntzeko, formulazio pestizida arriskutsuak identifikatzeko eta Idazkaritzari jakinarazpenak bidaltzeko beharrezko eskumen teknikoak eskainiz.

Batzordeak eta estatu kideek modu aktiboan parte hartu behar dute Segurtasun Kimikoko Gobernu arteko Foroko Gaitasuna Sortzeari buruzko Informazioa Trukatze Sarean, garapen bidean dauden eta trantsizioko ekonomia duten herrialdeetan sustatu eta diruz laguntzen ari diren proiektuei buruzko informazioa emanez. Batzordeak eta estatu kideek gobernu kanpoko erakundeek laguntza emateko pentsa dezakete.

### *21. artikulua*

#### **Jarraipena egin eta txostenak aurkeztea**

1. Estatu kideek Erregelamendu honetan aurreikusitako prozeduren funtzionamenduari buruzko informazioa bidali beharko dio Batzordeari aldian behin, bereziki aduana-kontrolari, zigorrei eta neurri zuzentzaileei buruzkoa.
2. Batzordeak Erregelamendu honetan bere eskumenpean ezartzen diren funtzioen jarduerari buruzko txosten bat egingo du aldian behin, eta 1. paragrafoan xedatutakoaren arabera, txosten hori estatu kideek emandako informazioa laburtzen duen txostenean sartuko du. Txosten horren laburpena bidaliko zaie Europako Parlamentu eta Kontseiluari, eta Interneten ere argitaratuko da.
3. 1. eta 2. paragrafoetan aipatutako informazioari dagokionez, estatu kideek eta Batzordeak beharrezko neurriak bete beharko dituzte datuen konfidentzialtasuna eta jabetza-eskubideak babesteko.

### *22. artikulua*

#### **Eranskinak eguneratzea**

1. Batzordeak gutxienez urtean behin berrikusiko du I. eranskineko produktu kimikoen zerrenda, Erkidegoko zuzenbidea eta Hitzarmena aldatzen diren heinean.
2. Erkidego mailako arauzko neurri irmo batek debeku edo mugapen zorrotz bat ezartzen duen zehaztean, neurri horrek "pestizida" eta "produktu kimiko industrial" azpimailatan duen eragina ebaluatuko da. Arauzko neurri irmo horrek produktu kimiko baten erabilera debekatu edo zorrotz mugatzen badu azpimaila horietako batean, produktu kimikoa I. eranskineko 1. paragrafoan sartuko da.



## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

Erkidego mailako arauzko neurri irmo batek debeku edo mugapen bat ezartzen badu eta, ondorioz, produktu kimiko horrek 10. artikulua arabera PIC jakinarazpena lortzeko baldintzak betetzen baditu, neurri horrek “pestizida” eta “produktu kimiko industrial” mailetan duen eragina ebaluatuko da. Arauzko neurri irmo horrek produktu kimiko baten erabilera azpimaila horietako batean debekatu edo zorrotz mugatzen badu, produktu kimikoa I. eranskineko 2. paragrafoan sartuko da.

3. Premiaren arabera, ahal bezain laster hartuko da produktu kimikoak I. eranskinean sartzeko edo beren oharrak aldatzeko erabakia.

4. Erregelamendu honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatzeko neurriak 24. artikuluko 3. paragrafoan aurreikusitako erregelamendu-prozeduraren arabera hartuko dira:

a) 2. paragrafoan xedatutakoari jarraiki, Erkidego mailan arauzko neurri irmo bat hartu ondoren, produktu kimiko bat I. eranskineko 1. eta 2. paragrafoetan sartzeko neurriak;

b) V. eranskineko 1. paragrafoan 850/2004 (EE) Erregelamenduak araututako produktu kimiko bat sartzeko neurriak;

c) I. eranskina aldatzeko beste neurriak, oharretan egindako aldaketak barne;

d) EB mailan esportatzea debekatuta dagoen produktu kimiko bat V. eranskineko 2. atalean sartzeko neurriak;

e) II., III., IV., eta VI. eranskinak aldatzeko neurriak;

f) V. eranskineko oharrak aldatzeko neurriak.

### *23. artikulua*

#### **Orientaziorako ohar teknikoak**

Batzordeak, 24. artikuluko 2. paragrafoan aipatutako kontsulta-prozedura erabiliz, Erregelamendu hau errazago aplikatzeko orientaziorako ohar teknikoak emango ditu.

Ohar tekniko horiek *Europar Batasunaren Egunkari Ofizialeko C* seriean argitaratuko dira.

### *24. artikulua*

#### **Komitea**

1. Batzordeak 1907/2006 (EE) Erregelamenduko 133. artikulua arabera sortutako Komitearen laguntza izango du.

2. Paragrafo hau aipatzen den kasuetan, 1999/468/EE Erabakiko 7. artikuluko 3. paragrafoa aplikagarri izango da, bertako 8. artikuluan xedatutakoari jarraiki.

3. Paragrafo hau aipatzen den kasuetan, aplikagarri izango dira 1999/468/EE Erabakiko 5 bis. artikuluko 1. eta 4. arteko paragrafoak eta 7. artikulua, bertako 8. artikuluan xedatutakoari jarraiki. Europar Batasunaren Egunkari Ofiziala L 204/13 2008.7.31.

### *25. artikulua*

#### **Erreferentziak 304/2003 (EE) Erregelamenduari**

304/2003 (EE) Erregelamenduari buruz egindako erreferentziak, hemendik aurrera Erregelamendu honi buruzkoak direla joko da.

### *26. artikulua*

#### **Indarrean sartzea**

Erregelamendu hau indarrean sartuko da *Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean* argitaratu eta hurrengo egunean.

Baina, hala ere, 17. artikuluko 2. paragrafoa aplikagarri izango da 2008ko azaroaren 1etik aurrera.

689/2008 (EE) Erregelamendua (EBren Egunkari Ofiziala, L 204/1, 2008/7/31koa)

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

Erregelamendu honetako atal guztiak nahitaez bete beharrekoak eta estatu kide bakoitzean zuzenean ezartzekoak izango dira.

Estrasburgon egina, 2008ko ekainaren 17an.

*Europako Parlamentuaren izenean*

*Presidentea*

*H.-G. PÖTTERING*

*Kontseiluaren izenean*

*Presidentea*

*J. LENARČIČ*

## ANEXO I

## LISTA DE PRODUCTOS QUÍMICOS

(a que se refiere el artículo 6)

## PARTE 1

## Lista de productos químicos sujetos al procedimiento de notificación de exportación

(a que se refiere el artículo 7)

Cabe señalar que, cuando los productos químicos enumerados en esta parte del anexo están sujetos al procedimiento PIC, no se aplican las obligaciones de notificación de exportación establecidas en el artículo 7, apartados 2, 3 y 4, del Reglamento, siempre que se satisfagan las condiciones previstas en el apartado 6, letras b) y c). Esos productos químicos, identificados con el símbolo # en la lista siguiente, figuran también en la parte 3 del presente anexo para facilitar las referencias.

Es preciso indicar asimismo que, cuando los productos químicos enumerados en esta parte del anexo reúnen las condiciones para someterse a la notificación PIC debido a la naturaleza de la medida reglamentaria firme de la Comunidad, estos figuran también en la parte 2 del presente anexo. Dichos productos se identifican mediante el símbolo + en la lista siguiente.

| Producto químico                                    | Nº CAS                              | Nº EINECS                               | Código NC  | Subcategoría (*)   | Limitación del uso (**) | Países para los cuales no se requiere notificación                      |
|---|-------------------------------------|---|------------|--------------------|-------------------------|---|
| 1,1,1-tricloroetano                                 | 71-55-6                             | 200-756-3                               | 2903 19 10 | i(2)               | b                       |   |
| 1,2-dibromoetano (dibromuro de etileno) #           | 106-93-4                            | 203-444-5                               | 2903 31 00 | p(1)- p(2)         | b-b                     | Véase la circular PIC en <a href="http://www.pic.int/">www.pic.int/</a> |
| 1,2-dicloroetano (dicloruro de etileno) #           | 107-06-2                            | 203-458-1                               | 2903 15 00 | p(1)- p(2)<br>i(2) | b-b<br>b                | Véase la circular PIC en <a href="http://www.pic.int/">www.pic.int/</a> |
| cis-1,3-dicloropropeno [(1z)-1,3-dicloroprop-1-eno] | 10061-01-5                          | 233-195-8                               | 2903 29 00 | p(1)- p(2)         | b-b                     |   |
| 2-aminobutano                                       | 13952-84-6                          | 237-732-7                               | 2921 19 80 | p(1)- p(2)         | b-b                     |   |
| 2-naftilamina (naftalen-2-amina) y sus sales +      | 91-59-8, 553-00-4, 612-52-2 y otros | 202-080-4, 209-030-0, 210-313-6 y otros | 2921 45 00 | i(1)<br>i(2)       | b<br>b                  |   |
| 2,4,5-T y sus sales y ésteres #                     | 93-76-5 y otros                     | 202-273-3, y otros                      | 2918 91 00 | p(1)- p(2)         | b-b                     | Véase la circular PIC en <a href="http://www.pic.int/">www.pic.int/</a> |
| 4-aminobifenilo (bifenil-4-amina) y sus sales +     | 92-67-1, 2113-61-3 y otros          | 202-177-1 y otros                       | 2921 49 80 | i(1)<br>i(2)       | b<br>b                  |   |
| 4-nitrobifenilo +                                   | 92-93-3                             | 202-204-7                               | 2904 20 00 | i(1)<br>i(2)       | b<br>b                  |   |
| Acefato +   | 30560-19-1                          | 250-241-2                               | 2930 90 85 | p(1)- p(2)         | b-b                     |   |
| Acifluorfenol                                       | 50594-66-6                          | 256-634-5                               | 2916 39 00 | p(1)- p(2)         | b-b                     |   |

| Producto químico                                    | Nº CAS                              | Nº EINECS                             | Código NC                     | Subcategoría (*)   | Limitación del uso (**) | Países para los cuales no se requiere notificación                      |
|---|-------------------------------------|---------------------------------------|-------------------------------|--------------------|-------------------------|---|
| Alacloro +  | 15972-60-8                          | 240-110-8                             | 2924 29 95                    | p(1)               | b                       |   |
| Aldicarbo +   | 116-06-3                            | 204-123-2                             | 2930 90 85                    | p(1)- p(2)         | sr-b                    |   |
| Ametrina  | 834-12-8                            | 212-634-7                             | 2933 69 80                    | p(1)- p(2)         | b-b                     |   |
| Amitraz +   | 33089-61-1                          | 251-375-4                             | 2925 29 00                    | p(1)               | sr                      |   |
| Compuestos de arsénico                              |                                     |                                       |                               | p(2)               | sr                      |   |
| Fibras de amianto +:                                | 1332-21-4 y otros                   |                                       |                               |                    |                         | Véase la circular PIC en <a href="http://www.pic.int/">www.pic.int/</a> |
| Crocidolita #                                       | 12001-28-4                          |                                       | 2524 10 00                    | i                  | b                       |   |
| Amosita #   | 12172-73-5                          |                                       | 2524 90 00                    | i                  | b                       |   |
| Antofilita #  | 77536-67-5                          |                                       | 2524 90 00                    | i                  | b                       |   |
| Actinolita #  | 77536-66-4                          |                                       | 2524 90 00                    | i                  | b                       |   |
| Tremolita #   | 77536-68-6                          |                                       | 2524 90 00                    | i                  | b                       |   |
| Crisótilo +   | 12001-29-5 o<br>132207-32-0         |                                       | 2524 90 00                    | i                  | b                       |   |
| Atrazina +  | 1912-24-9                           | 217-617-8                             | 2933 69 10                    | p(1)- p(2)         | sr-b                    |   |
| Azinfós-etilo                                       | 2642-71-9                           | 220-147-6                             | 2933 99 90                    | p(1)- p(2)         | b-b                     |   |
| Azinfos-metilo                                      | 86-50-0                             | 201-676-1                             | 2933 99 90                    | p(1)               | b                       |   |
| Bensultap   | 17606-31-4                          |                                       | 2930 90 85                    | p(1)- p(2)         | b-b                     |   |
| Benceno (1)   | 71-43-2                             | 200-753-7                             | 2902 20 00                    | i(2)               | sr                      |   |
| Bencidina y sus sales +<br>Derivados de bencidina + | 92-87-5, 36341-27-2<br>y otros<br>— | 202-199-1, 252-<br>984-8 y otros<br>— | 2921 59 90                    | i(1) -(2)<br>i(2)  | sr-b<br>b               |   |
| Binapacriló #                                       | 485-31-4                            | 207-612-9                             | 2916 19 50                    | p(1)- p(2)<br>i(2) | b-b<br>b                | Véase la circular PIC en <a href="http://www.pic.int/">www.pic.int/</a> |
| Cadmio y sus compuestos                             | 7440-43-9 y otros                   | 231-152-8 y otros                     | 8107<br>3206 49 30<br>y otros | i(1)               | sr                      |   |
| Cadusafos +   | 95465-99-9                          | n.a.                                  | 2930 90 85                    | p(1)               | b                       |   |
| Calciferol  | 50-14-6                             | 200-014-9                             | 2936 29 90                    | p(1)               | b                       |   |
| Captafol #  | 2425-06-1                           | 219-363-3                             | 2930 50 00                    | p(1)- p(2)         | b-b                     | Véase la circular PIC en <a href="http://www.pic.int/">www.pic.int/</a> |
| Carbaril +  | 63-25-2                             | 200-555-0                             | 2924 29 95                    | p(1)- p(2)         | b-b                     |   |

| Producto químico             | Nº CAS  | Nº EINECS   | Código NC                    | Subcategoría (*)                             | Limitación del uso (**)                   | Países para los cuales no se requiere notificación                      |
|------------------------------|---|---|------------------------------|--|---|---|
| Carbofurán +                 | 1563-66-2   | 216-353-0   | 2932 99 85                   | p(1)   | b   |   |
| Tetracloruro de carbono      | 56-23-5   | 200-262-8   | 2903 14 00                   | i(2)   | b   |   |
| Carbosulfán +                | 55285-14-8  | 259-565-9   | 2932 99 85                   | p(1)   | b   |   |
| Cartap                       | 15263-53-3  |   | 2930 20 00                   | p(1)- p(2)                                   | b-b                                       |   |
| Quinometionato               | 2439-01-2   | 219-455-3   | 2934 99 90                   | p(1)- p(2)                                   | b-b                                       |   |
| Clordecona                   | 143-50-0  | 205-601-3   | 2914 70 00                   | p(2)   | sr  |   |
| Clordimeformo #              | 6164-98-3   | 228-200-5   | 2925 21 00                   | p(1)- p(2)                                   | b-b                                       | Véase la circular PIC en <a href="http://www.pic.int/">www.pic.int/</a> |
| Clorfenapir +                | 122453-73-0   |   | 2933 99 90                   | p(1)   | b   |   |
| Clorfenvinfós                | 470-90-6  | 207-432-0   | 2919 90 90                   | p(1)- p(2)                                   | b-b                                       |   |
| Clormefós                    | 24934-91-6  | 246-538-1   | 2930 90 85                   | p(1)- p(2)                                   | b-b                                       |   |
| Clorobencilato #             | 510-15-6  | 208-110-2   | 2918 18 00                   | p(1)- p(2)                                   | b-b                                       | Véase la circular PIC en <a href="http://www.pic.int/">www.pic.int/</a> |
| Cloroformo                   | 67-66-3   | 200-663-8   | 2903 13 00                   | i(2)   | b   |   |
| Clozolinato +                | 84332-86-5  | 282-714-4   | 2934 99 90                   | p(1)- p(2)                                   | b-b                                       |   |
| Colecalciferol               | 67-97-0   | 200-673-2   | 2936 29 90                   | p(1)   | b   |   |
| Cumafurilo                   | 117-52-2  | 204-195-5   | 2932 29 85                   | p(1)- p(2)                                   | b-b                                       |   |
| Creosota y sustancias afines | 8001-58-9<br>61789-28-4<br>84650-04-4<br>90640-84-9<br>65996-91-0<br>90640-80-5<br>65996-85-2<br>8021-39-4<br>122384-78-5 | 232-287-5<br>263-047-8<br>283-484-8<br>292-605-3<br>266-026-1<br>292-602-7<br>266-019-3<br>232-419-1<br>310-191-5 | 2707 91 00<br><br>3807 00 90 | <br><br><br><br><br><br><br><br><br><br>i(2) | <br><br><br><br><br><br><br><br><br><br>b |   |
| Crimidina                    | 535-89-7  | 208-622-6   | 2933 59 95                   | p(1)   | b   |   |
| Cianazina                    | 21725-46-2  | 244-544-9   | 2933 69 80                   | p(1)- p(2)                                   | b-b                                       |   |
| Cihalotrina                  | 68085-85-8  | 268-450-2   | 2926 90 95                   | p(1)   | b   |   |

| Producto químico   | Nº CAS  | Nº EINECS                                | Código NC                | Subcategoría (*)  | Limitación del uso (**) | Países para los cuales no se requiere notificación                      |
|--|---|--|--------------------------|-------------------|-------------------------|---|
| DBB (di- $\mu$ -oxo-di-n-butilestanno-hidroxiborano/dioxaestannaboretan-4-ol)                | 75113-37-0                                      | 401-040-5                                | 2931 00 95               | i(1)              | b                       |   |
| Diazinón   | 333-41-5  | 206-373-8                                | 2933 59 10               | p(1)              | b                       |   |
| Diclorvós  | 62-73-7   | 200-547-7                                | 2919 90 90               | p(1)              | b                       |   |
| Dicofol con < 78 % p,p'-dicofol o 1 g/kg de DDT y compuestos afines al DDT +                 | 115-32-2  | 204-082-0                                | 2906 29 00               | p(1)- p(2)        | b-b                     |   |
| Dimetenamida +   | 87674-68-8                                      | n.a.                                     | 2934 99 90               | p(1)              | b                       |   |
| Dinitro-orto-cresol (DNOC) y sus sales (como sal de amonio, sal de potasio y sal de sodio) # | 534-52-1<br>2980-64-5<br>5787-96-2<br>2312-76-7 | 208-601-1<br>221-037-0<br>—<br>219-007-7 | 2908 99 90               | p(1)- p(2)        | b-b                     | Véase la circular PIC en <a href="http://www.pic.int/">www.pic.int/</a> |
| Dinobutón  | 973-21-7  | 213-546-1                                | 2920 90 10               | p(1)- p(2)        | b-b                     |   |
| Dinoseb y sus sales y ésteres #  | 88-85-7<br>y otros                              | 201-861-7<br>y otros                     | 2908 91 00<br>2915 36 00 | p(1)-p(2)<br>i(2) | b-b<br>b                | Véase la circular PIC en <a href="http://www.pic.int/">www.pic.int/</a> |
| Dinoterbo +  | 1420-07-1                                       | 215-813-8                                | 2908 99 90               | p(1)- p(2)        | b-b                     |   |
| Diurón   | 330-54-1  | 006-015-00                               | 2924 21 90               | p(1)              | b                       |   |
| Formulaciones en polvo seco que contengan una combinación de:                                |   |  | 3808 99 90               |                   |                         | Véase la circular PIC en <a href="http://www.pic.int/">www.pic.int/</a> |
| benomilo en una concentración igual o superior al 7 %  | 17804-35-2                                      | 241-775-7                                | 2933 99 90               | p(1)              | b                       |   |
| carbofurano en una concentración igual o superior al 10 %                                    | 1563-66-2                                       | 216-353-0                                | 2932 99 85               | p(2)              | b                       |   |
| y tiram en una concentración igual o superior al 15 % #                                      | 137-26-8  | 205-286-2                                | 2930 30 00               |                   |                         |   |
| Endosulfáno +  | 115-29-7  | 204-079-4                                | 2920 90 85               | p(1)              | b                       |   |
| Etión  | 563-12-2  | 209-242-3                                | 2930 90 85               | p(1)- p(2)        | b-b                     |   |
| Óxido de etileno (oxirano) #   | 75-21-8   | 200-849-9                                | 2910 10 00               | p(1)              | b                       | Véase la circular PIC en <a href="http://www.pic.int/">www.pic.int/</a> |
| Fenitrotión  | 122-14-5  | 204-524-2                                | 2920 19 00               | p(1)              | b                       |   |
| Fempropatrina  | 39515-41-8                                      | 254-485-0                                | 2926 90 95               | p(1)- p(2)        | b-b                     |   |
| Fentión +  | 55-38-9   | 200-231-9                                | 2930 90 85               | p(1)              | sr                      |   |

| Producto químico   | Nº CAS                             | Nº EINECS                    | Código NC                  | Subcategoría (*) | Limitación del uso (**) | Países para los cuales no se requiere notificación                      |
|--|------------------------------------|------------------------------|----------------------------|------------------|-------------------------|---|
| Acetato de fentina +   | 900-95-8                           | 212-984-0                    | 2931 00 95                 | p(1)- p(2)       | b-b                     |   |
| Hidróxido de fentina +   | 76-87-9                            | 200-990-6                    | 2931 00 95                 | p(1)- p(2)       | b-b                     |   |
| Fenvalerato  | 51630-58-1                         | 257-326-3                    | 2926 90 95                 | p(1)             | b                       |   |
| Ferbam   | 14484-64-1                         | 238-484-2                    | 2930 20 00                 | p(1)- p(2)       | b-b                     |   |
| Fluoroacetamida #  | 640-19-7                           | 211-363-1                    | 2924 12 00                 | p(1)             | b                       | Véase la circular PIC en <a href="http://www.pic.int/">www.pic.int/</a> |
| Flurenol   | 467-69-6                           | 207-397-1                    | 2918 19 85                 | p(1)- p(2)       | b-b                     |   |
| Furatiocarb  | 65907-30-4                         | 265-974-3                    | 2932 99 85                 | p(1)- p(2)       | b-b                     |   |
| Haloxifop-R +<br>(Haloxifop-P-metil ester)   | 95977-29-0<br>(72619-32-0)         | n.a.<br>(406-250-0)          | 2933 39 99<br>(2933 39 99) | p(1)             | b                       |   |
